


# HITZ EGITEN DUTEN ESKUAK





## Gor Komunitatea



**Zeinu Hizkuntzan eta mundua ikusteko era bisualean oinarritutako kultura, balore eta identitate berdinean murgilduta dauden pertsonen kolektiboa da. Identitate ezaugarri hauekin bat datozen pertsona Gor eta entzuleek osatzen dute Gor Komunitatea.**



## Gor Kultura



Gor Komunitatearen balore, tradizio eta ohitura multzoa.

### BALOREAK

- Zeinu Hizkuntza
- Elkarteak

### OHITURAK

- Elkarrizketarako estrategiak

### TRADIZIOAK

- Umorea
- Anekdotak

**KULTURA BISUALA** Gor Komunitatea bisuala den esperientziagatik definitzen da.

## Gor Identitatea



Gor Komunitateak Zeinu Hizkuntza eta Gor Kultura errebindikatzearen ondorioz sortutako kontzientzia.



## Pertsona Gorra

Entzumen urritasuna, gradu sakon edo arinagoan, pairatzen duten pertsonak dira, eta ondorioz beraien eguneroko bizitzan komunikazio oztopoak aurkitzen dituzte.

### HETEROGENEOTASUNA

Pertsona gorren kolektiboa oso anitza da. Gortasun mota eta gradua, pertsonaren familia, hezkuntza eta gizarte testuingurua bezalako faktoreak aniztasun honetan eragiten dute. Pertsona Gor bakoitzak bere behar eta eskakizun propioak ditu. Komunikatzeko era desberdinak dituzte eta guztiek ez dute Zeinu Hizkuntza erabiltzen, batzuk komunikazioa sistema alternatiboen erabiltzaile dira. ( KSA)

# Zeinu Hizkuntza

27/2007 LEGEA, zeinu hizkuntza espainolen onarpena

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/10/24/pdfs/A43251-43259.pdf>

1. Pertsona gorren hizkuntza naturala da.
2. Zeinu Hizkuntza ez da unibertsala.
3. Hizkuntzek dituzten berezko ezaugarri guztiak ditu eta pentsatzeko, komunikatzeko eta edozein kontzepturi buruz hitz egiteko erabilgarritasun berdina du.





# ALFABETO DAKTILOLOGIKOA




Zeinu  
Hizkuntzako  
Interpreteak  
(ZHI)



Zeinu hizkuntzan  
**profesionala** den  
interpretearen rola  
funtsezkoa da pertsona  
gorren benetako parte  
hartzea bultzatzen duen  
edozein gizartetan.  
Gor eta entzule  
komunitateen arteko  
**komunikazio** zubi  
bezala jokatzeko dute.







**Bimodala**

Zeinu hizkuntzako hiztegia erabiltzean datza, baina ahozko hizkuntzaren gramatika eta egitura errespetatuz.

Ezpainen mugimenduak ikusiz hitzak irakurtzeko trebetasuna. Egia esanda, baldintza onenak izanda ere informazioaren **%25a** jasotzea baino ez da posible.

**Ezpain irakurketa**

**Idatzizko komunikazioa**

Hizkuntza bat adierazteko sistema grafikoa da idazketa.



**Hitz osatua**

Ezpain-aurpegi irakurketa eta eskuen zortzi mugimendu ezberdin uztartzen dituen sistema silabikoa da. Esku mugimenduak aurpegiko hiru kokapenetan egiten dira.

Esprezio eta keinuen bidezko komunikazioa da. Komunikazioa osatzeko, argitzeko eta nabarmentzeko balio du.

**Mimika**

**Gorputz  
espresioa**

Keinu, gorputz jarrera, mugimendu, aurpegi esprezio, etab... rri esker oinarrizko komunikazioa izan dezakegu.

Bere arreta  
erakartzeko sorbalda  
edo besoa ukitu, argiak  
piztu eta itzali, edo  
lurzoruan edo mahaian  
kolpe suabeak eman,  
bibrazioa nabaritzen  
baitute.

Kontaktu  
bisuala

Ahoskatzea  
oztopatzen  
duten trabak  
ekidin

**Nola hitz  
egin  
Pertsona  
Gor  
batekin?**

Feedback-a

Ez oihukatu

Handitu  
gabe eta  
argi  
ahoskatu

Ez aldatu gai  
batetik  
bestera  
abisatu gabe

# OHIKO AKATSAK

## GORMUTUA

- **Bi ezgaitasun** desberdin, gortasuna eta mututasuna, dituen pertsona da.
- Zuzena, **pertsona gorra** izango litzateke.

## ZEINU LENGOAIA/ KEINU LENGOAIA

- **Lengoaia**, gizakien arteko, kode-linguistiko, ahozko-kode edo ikus-kode baten bidez komunikatzeko ahalmena da. **HIZKUNTZA**, komunitate baten berezko komunikazio sistema da.
- Zuzena, **Zeinu Hizkuntza** izango litzateke.

## ZEINU HIZKUNTZA UNIBERTSALA

- Zeinu hizkuntza EZ DA UNIBERTSALA. Herrialde bakoitzak bere berezko hizkuntza dauka, ahozko hizkuntzetan bezala.
- Estatu espainolean bi daude, Zeinu Hizkuntza espainola, eta Zeinu Hizkuntza katalana.

## EZPAIN IRAKURKETA

- Pertsona gor guztiak espain irakurketaren bidez primeran komunikatu daitezkeela oso mito zabaldua da.
- Espain irakurketari **informazioaren %25a** esker eskuratu daiteke.



UPVEHUko Ezgaitasunak dituzten  
Pertsonentzako Zerbitzuko Zeinu Hizkuntza  
Interpreteak egina

